



ETA ZUK NOLAKO ESKOLA
AMESTEN DUZU?

4.000 MILIOI BAINO GEHIAGO HAUTESKUNDEENGATIK BAKARRIK...?

Nafarroako trenbidea pil-pilean dabil berriro ere politikaren munduan.

Gaur egun, eta batik bat Geroa Bai Nafarroako Gobernura heldu denetik, aldatu egin da azpiegitura hori izendatzeko terminologia. Orain, PHT prestazio handiko trenaz mintzo dira, nahiz eta ez diren askorik ahalegindu zehazten zertan datzan goitasun hori, ez eta zerk bereizten duen AHT-tik ere.

Horretan guztian, hauxe da egia bakarra: izena aldatuagatik ere, proiektu berberak direla oraindik, 2004a baino lehenago diseinatuak, Nafarroako abiadura handiko trena eginez gero, kolpean desagertuko lirateke distantzia luzeko zerbitzu guztiak, AHTaren proiektuan ez baitago jasota tren geltokirik hiri horretan. Eta antzeko arazoak sortuko lirateke gaur egungo ibilbideko beste geltoki garrantzitsu batzuetan: Altsasu, Erriberri, Castejon... Horietan guztietan, distantzia luzeko loturarik ezingo lukete izan, AHTra aldatuko bailirateke, zeinak ez baitu aurreikusten geraldirik horietako ezeinetan. Eta baliteke aldirietako zerbitzuak ere gutxitzea, AHTa egiteko zorretan itorik. Merkantziak bakarrik geldituko lirateke, zeinak nekez ibiliko bailirateke AHTaren trenbidetik...

Argi dago, bada, AHTak are eta gehiago bakartuko lituzkeela Nafarroako hainbat eskualde. Ulertezina da Madrilgo eta Iruñeko gobernuak tematuta ibiltzea nafarroi onurarik ez dakarkigun azpiegitura hori ezarri nahian. Izan ere, gaur egun, tren zerbitzu inklusibo bat dugu, eta horren bidez komunikatzen da lurraldearen zati handi bat. Horrez gainera, gaur egungo trenak hobetu ahal izateko aukera handia du, hasierako proiektu-tik beretik izan baitzen sortua bide bikoitza edukitzeko moduan.

Gaur egungo trenak ahalmen txikia baldin badu, Manu Aierdi kontseilariak temati errepikatzen duen bezala, hori da bide bakarrekoa delako Nafarroako trenbidea —Castejon eta Altsasu artekoa—, eta, hortaz, trenak ezin dira elkarrekin gurutzatu, eta elkarren zain

egon behar dute gurutzatzeko. Baina, egin zutenean, bigarren bidea muntatu ahal izateko prestatu zuten.

Bidea bikoizteaz gainera, nazioarteko zabalerara egokituz gero —hirugarren errailaren teknologia erabiliz—, gaur egungo linean dauden arazorik gehienak konponduko lirateke. Eta, hala, Nafarroako garraio-bideari sekulako onura ekarriko liokeen zerbitzu bat ezarri ahalko genuke: aldirietako zerbitzu ahaltsu bat izango genuke, eskualdeko bizilagunei aukera emango liekeena garraio-bide iraunkor baten bidez komunikatzeko, tren konbentzionala erabiliz. Hori guztia, gainera, bateragarria izango litzateke gaur egun dagoen merkantzien zirkulazioarekin —baita ibilbide luzeko zerbitzuekin ere—, zeinari ongi bailetorkioke nazioarteko zabalerarekin bateragarria izatea.

Hauxe da, laburbilduz, Sustrai Erakuntza Fundazioak egin duen Nafarroarendako Tren Publiko eta Sozialaren proposamena. Orain daukagun azpiegiturak eta baliabide publikoak ondo erabiltzen dituen proposamenak, eta Abiadura Handiko proiektua kostatuko duela baino askoz merkeagoa izango dena. Horregatik ezin dut ulertu zergatik politikariek temati jarraitzen dutela bere proposamenarekin, 4.000 milioi euro kostatuko duena Nafarroako korridore osorako. Ezin dut ulertu horrela gastatu nahi dutela denendako diren diruak, "nik egin nuen" esatea ekarriko lukeen hurrengo hauteskundetari irabaziengatik bakarrik. Ez dut ulertzen.

Martín Zelaia García
Sustrai Erakuntza Fundazioaren kidea.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

AILOPE:
GUNDU MAILO
LAGU

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

AA | **FISIOTERAPIA**
Andoni Ayerdi Olascoaga
609 536 002 · 948 604 789

Iturritak kalea 7, 3 1870 Lekunberri
andoniaofisioterapia@gmail.com



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefona eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriazpiroz.com


OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri



OGI BERRI
OKIN ARTISAURAK 948604884

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzí plaza**



05 BERTSO BERRIAK: Igor Mitxaus.

06 ELKARRIZKETA: Ikas komunitatea.

10 MOKOKA

11 KUXKUXEAN: Abenduko zorion agurrak.

12 BATZARRE

15 EGUTEGIA

20 LUZE ETA ZABAL

22 KULTURA

24 ELKARRIZKETATXOA: Mikel Alvarez.

26 OREKA OSASUNTSUA

27 KIROLA: Behobia-Donostia lasterketa.

28 PLAZATIK PLAZARA: Intzako behi eskoziarrak.

31 KONTU TXIKIAK

• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzeta eta Uztegi.

• ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako irizita eta esanetan erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• ARGAZKIAK:

Labrit, Ondare Kultur Taldea, Gari Garaialde, Juan Antonio Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Mikel Alvarez, Ibarberri ikastetxea, Agustin Saralegi, Araxes ikastetxea, Ttuturre Kirol Elkarteak, Larraungo Pilota Eskola, Idoia Igoa eta Mikel Hernandorena.

• PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• MAKETAZIOA: Araitz Amatria.

• TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

IBARBERRI



Itsasoko animaliez ari garela...

Olagarroatik, marrazoak, karramarroak, itsas zaldiak... bai bai, hori guztia ikusi genuen Donostiako Aquariumera egin genuen txangoan. Izugarri polita izan zen gelan ikasi ditugun itsas animalia ezberdin horiek bertatik bertara ikustea. Beldurra, irrika, poza... zenbat emozio denbora gutxian!!

Eguraldia lagun eta eguna borobiltzeko, hondartzara ondoko parkean igaro genuen bazkal garaia. Ederki pasa genuen 4 eta 5 urtekook. Bai horixe! Bueltatuko gara, ziur!!



eskolatik mailopera



**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEXO JATETXEA


Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



BEIGORRIK ITXITA JARRAITZEN DU

Urtebete baino gehiago darama itxita Beigorri Abentura Parkeak. Lekunberriko hariztian eraikitako parkea 2003ko udan ireki zuten, baina jada ez dago bertan zuhaitz batetik bestera ibiltzeko aukerarik. Abenduan proiektu berri bat aurkezteko asmoa dute zerbitzu berri bat eskaintzeko.



JANZTEN IKASTEKO TAILERRA

Zaida Muñoz *personal shopperra* da eta datorren abenduaren 11an jantziekin norberaren onena ematen ikasteko tailer bat eskainiko du Bete-luko Aitzberri Zentroan arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara edo 17:00etatik 19:00etara. Gehie-nez ere bost pertsonako taldeentzako tailerrak izanen dira. Mugi eta eman izena lehenbailehen 696 73 22 90 mugikor zenbakira deituta.



NEGUKO AZOKA

Lekunberriko Udalak Neguko azoka antolatu du. Abenduaren 8an, 9an eta 10ean goizeko 10etatik arratsaldeko 19:30etara bitarte bigarren eskuko arropak, oinetakoak, jostailuak, liburuak, pitxiak, musika tresnak eta bestelakoak erosteko aukera izanen da Lekunberriko frontoian.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Igor Mitxaus (Lekunberri)

**Zonalden goitik bera
dijoa euskera,**
*nondik begiratzen den
noren arabera,
ikus daiteke txuri
edo beltz tankera,
norantz hartu joera
norberan aukera.*

*Luis Mari ulertzen dut daukazun
euskararekiko **kezka,**
neri hainbeste negar ta kexak
maiz egiten dit **gainezka,**
jarrera honek ez du esan nahi
ari naizela **iheska,**
baina arazoei aurre egiteko
biderik onena **ez da.***

Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago.

Hurrengoarentzako puntua:

Eguberri garaia
gustatzen al zaizu?

Oinak:

Eskatu, ahaztu, pastu, gastu.



“Ikasleek gehiago eta hobeto ikas dezatela nahi dugu”

Araxes ikastetxeko irakasle eta gurasoek iaz onartu zuten Ikas komunitatearen proiektua martxan jartzea. Abenduaren 22an hasiko dira eskolan egikaritzea gustatuko litzaieken aldaketa horiek amesten eta herritar guztien parte-hartzea eskatzen dute. Arantxi Ariztimuño eta Sara Largo irakasleekin izan gara.

laz hasi zineten Ikas komunitatearen proiektua martxan jartzen. Zein pauso eman dituzue orain arte?

Arantxi: Ni Mendigorriako eskola batean irakasle ibili nintzen bost urtez, Nafarroan proiektu hau aurrera eramanean duen lehenengo eskolan. Betelura etorri nintzenean hango lan egiteko zenbait eredu irakasleekin konpartitzen hasi nintzen. Gero Hezkuntza Departamentuak Ikas komunitatearen proiektuan parte hartzeko aukera hori eskaini zuen kontratu programa baten bitartez. Lehenengo urte hartan ez ginen animatu, baina iaz jada klaustroak baietz esan zuen eta gurasoei proiektua aurkeztu genien. Mendigorriako bi irakasle euren esperientzia azaltzera etorri ziren eta bilera batzuen ondotik

“Zer-nolako eskola nahi dugun pentsatu behar dugu eta galdera horri erantzuteko beharrezkoa dugu amestea”

gurasoek osotasun batez baietz eman zuten.

Sara: Eta Nafarroako Gobernuak eskaintako programan parte hartzeko eskaria egin genuen. Hezkuntza Departamentuak lau irakasle ordu ematen dizkigu astean proiektu hau aurrera eramateko eta irakasleok ere formakuntza jasotzen ari gara.

Baina zer da Ikas komunitatea?

S: Elkarbizitza eta elkartasuna areagotu eta ikasketa sistema hobetzeko komunitate osoa inplikatzeko, aito-ama-amonak izan, edo besterik gabe, lagunak, bizilagunak, seme-alabak... Berdin da, denak inplikatuko ditugu Ikas komunitate edo eskola eraldatzeko.

A: Ez da eskolan bakarrik ikasten, komunitate guztian ikasten da eta denok daukagu zerbait erakusteko eta aldi berean ikasteko.

Eta zein da helburua?

S: Hau guztia ez da guri bururatu zaigun gauza bat, ez da esperimendu bat, garatu behar ditugun ekintza guztiak oinarri zientifiko bat daukate. Azken batean, ikasleek gehiago eta hobeto ikas dezatela nahi dugu eta horretarako irakasleak ez ezik komunitate osoa izatea ikasketa prozesu horren protagonista aktiboak, eurak baitira etorkizuna, beraiek ari dira etorkizuna eta gizartea eraldatzen dihoaztenak eta eraldaketa horren protagonistak bihurtu behar ditugu.

A: Garai bateko ikasteko modua, irakaslea erabat azalpenak ematen

Sara Largo eta Arantxi Ariztimuño Araxes ikastetxeko irakasleak dira, gaur egun Ikas komunitateko batzordean dabilza buru-belarri. Arg: Labrit.



eta ikasleak entzuten ia parte hartu gabe... hori aldatu egin behar dugu, ikasle aktiboak izan behar dute.

Proiektuaren gauzatzea fase ezberdinetan dago banatuta...

S: Bai. Lehendabiziko bi faseak sensibilizazioa eta erabakitzea dira. Horiek iaz egin genituen, gaia komunitatean zabaltzeko guren, gurasoen azaldu eta gaia landu ondoren erabakia hartu genuen. Orain ametsen fasean gaude, zer-nolako eskola nahi dugun pentsatu behar dugu eta galdera horri erantzuteko beharrezkoa dugu amestea. Horretan gaude!

A: Komunitate osoak amestea nahi dugu.

Beraz, komunitateko edonork izan du eskola eraldatzeko aukera?

S: Jende guztiak amestea nahi dugu, baita lauogei urteko aitona-amonak ere, euren garaian beste eskola bat bizitu zuten eta ziur eurek ere beste eskola batekin amestu zutela, pentsatu izan zutela "Eskola horrelakoa izango balitz...". Denok daukagu ametsak.

A: Amets horiek anonimoak izango dira eta eskolako paretetan jarriko ditugu, edonork irakurri ahal izateko. Amets horiek zintzilikatzeko gai bat aukeratzea pentsatu genuen eta non gauden kontuan hartuz, naturaren gaia erabiltzea erabaki dugu. Eskola naturako elementuekin apainduko dugu, erreka, hodeiak, zuhaitzak... eta ametsak ur tantetan edo hostoetan idatziko ditugu.

Amets horien bilketa nola egingo duzue?

A: Nahi duen oro eskolara bertara etor liteke amestera, baina abenduaren 22tik aurrera bailarako saltoki eta puntu ezberdinetan postontziak jartzea da gure asmoa, edozein herritarrek, paper batean bere ametsa



idatzi eta bertan sartzeko aukera izan dezan. Urtarrilaren 21 izango da ametsak idazteko azken eguna.

Eta hurrengo pausoa zein izango da?

A: Gero gaika sailkatu egingo ditugu, azpiegiturekin lotutakoak alde batetik, metodologiarekin lotutakoak bestetik, etab. Behin sailkapena egin da batzorde mistoak sortuko ditugu eta ametsak gauzatzen hasiko gara.

Eta zergatik da horren garrantzitsua edozein herritarrek parte hartzea?

S: Eskolan gure seme-alabak uzten ditugu, baina baita gure bilobak, gure lehengusuak, ezagunak... Ordu asko ematen dituzte bertan eta lana ongi egiten ari direnaren konfiantzarekin uzten ditugu. Baina askotan ikastetxearen eta eskolaz kanpoko errealitatearen artean haustura bat ematen da, ez da loturarik izaten. Pertsonalki uste dut eskolan irakasten dugunak nolabaiteko balioa izan behar duela euren bizitzetarako, eta haustura hori mantentzen badugu oso zaila da.

Ikastetxea denon artean eraldatzea da helburua.
Arg: Labrit.

"Ez da eskolan bakarrik ikasten, komunitate guztian ikasten da"

Hamahiru guraso eta hiru ikaslek osatzen dute proiektua aurrera eramateko batzordea. Arg: Labrit



Dagoeneko pentsatu duzu zure ametsa? Ikas komunitateko batzordeetan parte hartu nahi duzu? Jarri harremanetan: 948 51 33 85 edo ikasko.araxes@gmail.com

Gurasoei askotan iruditzen zaie eskola oso aparte gelditzen dela, ezin dutela ezer erabaki eta hori ez da horrela. Gauza askotan parte hartu dezakete eta irakasleok ditugun baliabideez gain baliabide pertsonal horiek ere aprobetxatu behar ditugu. Laurogei urteko aitona batek zazpi urteko haur bati erakutsi diezaiokeen izugarria da. Denok eman diezaiekegu zerbait gure ikasleei eta denok gara garrantzitsuak eskolarako.

Elkarrizketa Ikas komunitatearen oinarrietako bat...

S: Bai, ikasketa dialogikoa da oinarria, denon iritzia aintzat hartzen den ikasketa. Honek esan nahi du inklusiboa izan behar duela, integratua, aukera berdintasunean oinarrituta, desberdintasunak alde batera utziz. Denok gara garrantzitsuak, kultura

guztiek daukate aberastasuna eta aberastasun horretatik ikasi behar dugu.

A: Gainera, kanpotik guri irakastera datorren horrek ere zenbait gauza ikasiko ditu hemen ikasleekin. Eta ikasteaz gainera, harremanak izugarri sendotzen dira eta errespetua lantzen da. Egonen dira pertsonak kalean agurtu ere egiten ez dituzunak, ezagutzen ez dituzulako edo harremanik ez duzulako, baina eskolara etortzen hasten den momentutik, pertsona horrek badu izen bat eta bada norbait ikasleentzako. Harreman hori estutu egiten da eta hortik aurrera kalean ikusterako agurtu egingo duzu. Hori ere garrantzitsua da, ez ditugu edukiak soilik ikasi behar, matematika, ingelesa... bizitzen ere ikasi behar dugu.

Talde interaktiboak ere sortuko dira...

A: Bai. Ikas komunitateak ikasketa dialogikoa eta interakzioa bultzatzen du. Garai bateko eskolan dialogorik ez zen izaten eta orain parte hartzea eta talde lanak gehiago landuko ditugu. Talde interaktiboetan lauko taldeetan jartzen dira eta irakasleak zailtasun puntu bat duten ariketak proposatzen ditu taldean aurrera ateratzeko. Talde bakoitzean irakasle bat edo komunitateko pertsona heldu bat egongo da. Pertsona honen lana ez da izango jarduera nola egin esatea, baizik eta taldea dinamizatzea, ikasle guztiek hitz egiten eta parte hartzen dutela bermatzea eta euren artean errespetatzea. Denen

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

panaderia okindegia

GALBURUeco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

artean erabaki beharko dute ariketa nola egin. Irakasle bakar batentzat zailagoa da talde guztiei behar duten arreta eskeintzea, denbora gehiago erabiltzea suposatzen du, heldu gehiago egonda, talde bakoitzeko bat, askoz eraginkorrago gertatzen da lana.

Eta tertulia literarioak ere egingo dituzue...

A: Bai, maila batzuetan dagoeneko hasi dira tertulia literarioak egiten. Tertulietan aldez aurretik aukeratu-tako liburu bat irakurtzen da. Denon artean adosten da ze orritatik ze orritara irakurri behar den hurrengo asterako eta irakurtzeaz gain, ikasleek interesgarri aurkitzen dituzten gauzak, gustatu ez zaizkienak, ulertu ez dituztenak, beren bizitzarekin lotzen duten zerbait... kuadernotxo batean idatzi eta tertulia egunean besteekin konpartitzen dute. Irakurketa lantzeko beste modu bat da eta horrela bakoitzaren iritzia errespetatzen ikasten dute, txandak errespetatzen eta hitza denei ematen zaie, baita isilagoa den ikasle horri ere.

Baina Hezkuntza Departamentuak finkatutako Curriculuma ez da aldatzen...

S: Ez. Hezkuntzak ezarritako legearen eta Curriculuma menpe gaude eta berdin-berdin betetzen jarraituko dugu. Aldatzen dena ikasteko modua da, baliabide berriak erabiliz eta pertsona gehiago inplikatur.



Ibarberrin ikasleak ere hasiak dira gaia lantzen. Arg: Labrit.

IBARBERRIKO IRAKASLEEK ERE HARTU DUTE ERABAKIA

Lekunberri eta Larraungo Ibarberri ikastetxean ere Ikas komunitatea martxan jartzeko saiakera egiten dabilta. Joan den azaroaren 16an proiektua jendaurrean aurkeztu zuten Lekunberriko kiroldegian. Bertara ere Mendiagorriako irakasleak gonbidatu zituzten, eurek izandako esperientzia azaltzeko.

Ibarberriko klaustroak dagoeneko hartu du erabakia, aho batez proiektuaren alde egitea onartu du. Orain gurasoena da erabakia eta horretarako hainbat bilera egingo dituzte gaia eztabaidatu eta zalantzak argitzeko.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Pribatutasuna edo babesa



●● Andrea Etxarri



●● Pello Azpirotz

Badihoa aurrera udazkena Pello eta badira 16 hilabete gertaera pasa zenetik, baina epaiketa eguna iritsi da eta, Sanferminetan gertatuko taldeko eraso sexualaren kontua berriz ere azalatu egin da. Egia esan gertatukoaren nolakotasuna edonor mutu uzteko modua izan zen, basakeria bat. Eta normala iruditzen zait, bai gertaera hau zein antzeko berriak entzuterakoan sortzen zaigun amorrua dela eta, gure esku dugun hori zabaltzea, salatzea, informazioa elkarbanatzea, gure babesa adieraztea, etab. Gainera, gaur egun dauden komunikabide baliabide izugarriekin (sare sozialen azkartasuna eta difusioa, telekomunikabideak, mugikorra...) berriak eta datuak modu oso azkarrean eta etxe guztietaraino iristen dira konturatu orduko.

Informazioa jasotzen dudana modua ikusterakoan, galdera ezberdinak sortzen zaizkit. Zer puntutaraino da beharrezkoa detaileetan sartzea? Neurririk gabe zabaltzea? Gure ekintzekin babesa eman nahi izaten dugunean, hau lortzen dugu ala biktimen pribatutasuna apurtzen dugu?

Nire uste apalean, zerbait zabaltzerakoan errespetu handiz, ondorioak neurtuz eta "morboa" edo ikusgarritasuna ekidinez egin beharra dago. Ez dugu ahaztu behar guri berriak iristen zaizkigun modu berean biktimari ere iristen zaizkiola, honegatik da hain beharrezkoa hitzak zaintzea, egoera ulertzeko beharrezkoak diren datuak besterik ez ematea. Erreza da gehiegikerietan erortzea, eta ekidin beharreko zerbait dela iruditzen zait. Askotan gauza bat salatzeke eta gizartearen kontrako oihartzuna lortzeko kasuaren detaile guztiak azalratzea beharrezkoa ez dela iruditzen zait. Biktimekiko eta gizadiarekiko errespetuan, helburua zein den ahaztu gabe: biktimen sufrimendua gutxitzea, babesa eskaintzea, kontzientzia eta heziketa bideratzea... azken finean, gizarte hobetoago bat lortzea. Zer iritzi duzu zuk berriak egin eta zabaltzen diren moduaren inguruan?

lepa Andrea! Garai honetan suaren ondoan egotea bezalakorik ez dago, inoiz nekatuko ez nauen gauzetariko bat da. Olentzerok jada nahiko buruhauste izango ditu Egu-berriak iristear baitaude. 2017a badoa eta 2018a ate joka daukagu. Baina badira noski gurean berdin mantenduko diren gauzak, adibidez komunikabideengandik jasotzen dugun informazio bonbardaketa. Berriak gelditu gabe iristen zaizkigu bai hurbiletik eta bai urrutitik.

Gaur egun egiten diren berriek geroz eta gehiago dute "morbotik" beste gauza askorengandik baino. Honen adibide garbia izaten ari da aipatu duzun Sanferminetako bortxaketaren kasua, detaile txikiena ere jakiteko nahia komunikabideen aldetik (pertsonek pribatutasuna apurtuz). Oso gai delikatuak da eta kontu handiz landu beharrezkoa.

Biktimak nahiko min jasan behar izan du orain min horretan gehiago sakontzeko. Beste aldeko ere dagokionez, nabarmenduko nuke ze desberdinak izan diren Altsasuko eta sanferminetako akusatuen berriak lantzeko era kate batzuetan (adibidez, hasieratik aurpegiak erakutsiz batzuei eta besteei aurpegia estaliz).

Baina berrien egite eta zabaltze prozesuan pisu handia ere badute mugikorrek. Arrisku handia ikusten dut gaur egun mugikorrei ematen diegun erabileran. Etengabeko mezu olde honetan maiz aurki ditzakegu "bulo" edo gezurrak, minutu bakar batean pertsona baten bizitza suntsitzeko aukera daukazu tresna honen bidez bere inguruko gezur bat zabalduz. Inongo garrantzirik eman gabe zabaltzen ditugu uneoro argazkiak, audioak, bideoak... Zuk diozun bezala Andrea, batzuetan onargarritzat jotzen ez ditugun egoera desberdinen aurrean zalantzak ditut, sare sozialen bidez egiten dugun difusio horiek onura edo kalte gehiago dakartzaten eurekin.

Laburbilduz, komunikabide ugari iparra galdu dutela uste dut inpartzialtasunari eta profesionaltasunari dagokionez eta arduratsuagoak izan behar gara tresna hauekin. Hurrengo urtean ikusiko dugu elkar berriro, urte berri on denoi!





Izadi Balda Irungarai
Abenduak 23, 10 urte.
Zorionak eta aunitz urtez!!!
Muxu pila bat familia guztiaren partez!!



Enaitz Iriarte Olano
Abenduaren 19an, 3 urte.
Zorionak txapeldun!!!
Ongi-ongi pasa eta segi horren alai. Muxuak Elaia, aitatxo eta amatxoren partez.

Alain Castrillo Cruz
Abenduak 1, 12 urte.
Aupa Alain! Zorionak Atalluko familiaren partetik!

June Tolosa Iraola
Abenduak 14, 8 urte.
Zorionak maitia. Gozatu eta ondo-ondo pasa zure eguna. Muxu haundi bat Urko, aitatxo ta amatxoren partez.



Manex Mitxelorena Eskamendi
Abenduaren 13an urte 1 beteko du etxeko txikiak.
Ongi pasa zure egunean. Muxu bat Jokin, aitatxo ta amatxoren partez.



Aitor Ruiz Martin
Abenduak 7, urte 1.
Zorionak zure guraso eta familiaren partez. Beti irribarre berdina eduki dezazula. Muxu asko!!

Jose Angel Etxarri
Abenduak 17, 68 urte.
Zorionak aitona!
Eskerrik asko beti hor egoteagatik.
Muxu handi bat zure familiaren partez!!



Mikel eta Igor Astiz Buldain
Abenduaren 16an Mikelek 6 urte beteko ditu eta abenduaren 31n Igorrek urte 1. Zorionak maitiak!
Oso ongi pasa eta muxu handi bi etxeko guztien partez! Izugarri maite zaituztegu!

Sergio Rodríguez
Azaroak 30, 38 urte.
Zorionak bihotzez!!
Asko maite zaituen zure familiaren partez.



Olatz Altuna Gaztelumendi
Abenduak 20.
Urte askotarako politte!!! Muxu haundi bat etxeko guztien partez!!! Zure alaitasunaz gozaten segiko dugu!!!!

Garbiñe Etxeberria
Abenduak 8.
ZORIONAK GARBINE!!!
Oso ongi pasa zure egunean!!!
Muxu bat zure kuadrillaren partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

MAILOPE!
LAGUNDU MAILOPE!
LAGUNDU MAILOPE!
LAGUNDU MAILOPE!

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

OKM
ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubietta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

300 LAGUN INGURU ELKARTU DIRA ODERIZKO TRIKUHARRIEN IBILBIDEAN

Ezin arrakastatsuagoa izan zen joan den hilean Ondare Kultur Taldeak antolatutako Trikuharrien ibilbidea. Ode-
rizko plazatik irten eta 3,4kmko ibilbidean Pagamendi, Azolape, Milaldapa eta Pikabotz trikuharriak ezagutu zituz-
ten eta bidean zenbait jentilekin ere topo egin zuten. Ondare Kultur Taldeak auzolanean egindako lanari esker,
hemendik aurrera bakarrik, familian nahiz lagunekin egiteko beste ibilbide bat izanen dugu Larraunen.



GAZTETXOEI ZUZENDUTAKO HAINBAT EKIMEN ANTOLATU DITU MANKOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUAK

Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak hainbat jarduera egin ditu urte amaiera honetan. Joan den irai-
lean eskualde osoko 57 gazte Uharteko izotz-pistan izan ziren, aurreikusitakoa baino arrakasta handia-
goa izan zuen. Bestalde, joan den hilean jostailu trukaketa egin zuten Beteluko frontoian. Haurrek aurretik euren jostailuak eskolara eraman zituzten eta trukaketaren egunean, trukean jostailuren bat edo beste hartu zuten eta soberan gelditu zirenak ANARRAS gobernuz kanpoko erakundera bidali zituzten. Gainera, jostailu kooperatiboen erakusketa eta jolas librea ere izan zuten eta sormena lantzeko eskulan tailerren parte hartu zuten.

Lekunberrin ere azaroko azken astean, Elkartasun Astearen baitan, janari eta jostailu bilketa egin zuten Ibarberri eskolan. Trukaketa eguna abenduaren 2an izanen dute Lekunberriko frontoian. Bertan bildutako janaria Nafarroako Elikagaien Bankura eramango dute.

Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak eskerrak eman nahi dizkie ekintza hauek antolatzeko ahalegina egiten duten Guraso Elkartei eta ikastetxeei.

Bestetik, Abenduaren 2an, arratsaldean gazteentzako sukaldaritza tailerra antolatu dute Gaintzako elkartearen.



Jose Javier Barberena, Larraungo Udaleko alkatearen eskutik ere oroigarri hau jaso zuen Mikaelak. Arg: J.A. Garaikoetxea.

MIKAELA OLAETXEAK 100 URTE BETE DITU

Joan den azaroaren 5ean Oderizko Mikaela Olaetxeak bere 100. urtebetetzea ospatu zuen. Goldaratzen jaioa izan arren, Oderitzen bizi izan da Jose Arrokierekin ezkonduz geroztik. Lekunberriko Ayestaran hotelean egindako bazkari batekin eta bere senitartekoez inguratuta ospatu zuen bere mendeurrena. Zorionak Mikaela!

LEKUNBERRIKO ABESBATZAK BESTE URTE BATEZ KONTZERTUA ESKAINIKO DU EGUBERRIETAN

Datorren abenduaren 24an Lekunberriko Abesbatzak kontzertua eskainiko du Lekunberriko elizan 11:45etan. Txistulari taldeak ere parte hartuko du eta euskarazko abestiak bestelako obra handiekin tartekatuko dituzte.



EKITALDIZ BETETA DATOR ARAITZ-BETELUKO KULTUR ALDIA

Araitz-Beteluko Euskaraz Bizi Taldeak aste osoko egitaraua antolatu du Araitz-Beteluko Kultur Aldiaren bueltan. Abenduaren 2an emanen diote hasieran, Gaintzako elkartearen 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako sukaldaritza tailerrarekin. Hurrengo egunean, igandearekin, Euskaren Eguna ospatzeko artisau azoka izanen da Betelun eta arratsaldean Uztegin "Sustraietatik Hitzetara" tailerra eskainiko du Patricia Laclaustrak, gorputz-kontzientzia, borondatezko arnasketa eta adierazpen sortzailea lantzen ikasteko.

Abenduaren 9ra arte hainbat ekitaldi daude aurreikusita, kontzertuak, hitzaldiak, klowen ikuskizuna... (Egitarau osoa kontrazalean ikusgai duzue).



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA SALATUZ


Azaroaren 25ean, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen eta eskualdeko udal ordezkari, eragile eta herritarrek bat egin zuten antolatutako hainbat ekitalditan. Goizean elkarretaratzea egin zuten Lekunberriko plazan. Iaz ez bezala antolatzaileek deialdi bateratua egin zuten eta Mitxauseneak, Lekunberri eta Larraungo Udalek, Bilgune Feministak eta Itxaro taldeak deituta 25 lagun inguru elkartu ziren mezu argi batekin, "Emakumeak indarkeria matxistatik aske bizitzeko aukera eraiki behar dugu, herrialde eta lurralde askeak lortzeko, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunean oinarritutako elkarbizitza-eredu askeak errealtate bihurtzeko".

Arratsaldean, Uitziko elkartearen Emakundeak ekoiztutako *Volar* dokumentala izan zen ikusgai eta aurreko egunean ere Javier Balaguerren *Solo mía* filma eskaini zuten Mitxausenean. Oraindik zintzilik daude eskualdeko udaletxeetan jarritako aldarrikapen pankartak.

HAU EZ DA ZABORRA, BIZIA BAIZIK

Gai organikoen hondakinak bereizi eta birziklatzea eskuzabaltasunez eta zurekiko eta etorriko direnekiko konpromisoz jokatzeko da. Zure laguntzak gas kutsatzaile gutxiago igortzeko, lurrerako ongarria ekoizteko eta energia berriztagarriak sortzeko aukera ematen du.

EZ EGIN PASO ORGANIKOAZ!



Aendialdea
an komunitatea



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

¿MARRONES? SI, GRACIAS
ORGANIKOAK? BAI, MILA ESKER

Nor da Nor?



Aurreko alean kaleratutako argazkia
Beteluko Labainean ateratakoa da,
garai bateko musika eskolan.
Ezkerretik eskuinera:

Nerea Zabala, Irati Oreja, Amagoia
Telletxea eta Ana Mari Saralegi.

nor da nor?

Nor da Nor?



*Nortzuk azaltzen dira
argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?*

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako
mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu
eta kudeatuko dugu.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

IORTIA CLINICA DENTEL - HORTZ-BELUSKA
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsatu: 948 467 603 - 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

SK **SUAKONTROL
LEKUNBERRI**
*Suaren
kontrako
plakak*
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

Mugikorra eskuan eta ibili munduan

Goizeko bederatzi eta erditan jo du iratzargailuak. Kostatu zait begiak irekitzea atzo berandu oheratu nintzen eta. Mugikorra hartu dut, noski. Ezin dut berririk galdu. Berriak irakurriko banitu sikiera. Hamalau WhatsApp soilik eta uff... kuadrillako taldean afaria noiz egingen eztabaidan. Bah, paso.

Instagram ireki dut. 'Insta-storiak' eta argazkiak ikusi, berrikusi, bakoitza non eta zertan ibili den ongi barneratzeko. Aiba! Uxue Pirinioetan dabil. 'Like'. Eta Iker? Iker gaixo. Hala ere, klik bikoitza egin dut argazkiaren gainean. Aitziber Madrilén eta Gran Viako ohiko argazkia igo du, 'que pesada', baina 'like'. Itxasne Milanen, "duela bi egun Parisen zegoen eta!". 'Like'. Urkok bikotekide berria dauka, antza. Pare bat, edo hamaika, ez dut oroitzen, 'like' eman eta itxi egin dut aplikazioa.

Facebookaren txanda. Indarkeria matxistaren aurkako testutxoa egin du Ametsek, "atsegin dut". Arte ederretako museoan ibili da Garaiz, ez diot "atsegin dut" botoitxoari eman nik ez baitut arteaz deus ulertzen. ABC egunkariaren Kataluniari buruzko artikulu bat. Pare bat iruzkin irakurtzeari ekin diot. "Buajj, zer nolako jendilajea", itxi eta nire lanarekin jarraitu dut. Andrea, beti bezala, umorezko bideo bat partekatu du. Euskarari buruzko testu luzea egin du justuan euskaraz dakien Arianek. Hara, espainol peto-petoo sentitzen den Facebookeko "lagun" batek Willy Tolerdo partekatu du. Hau da hau marka!

Nekatu naiz. Erlojua begiratu eta

uf, hamarrak eta hamar. Jaikitzeko ordua. Nola ez, mugikorra eskuan jaitsi naiz gosaltzera. Esnea berotzen den bitartean, kuadrillako WhatsApp taldea ireki eta afaria egiteko hobe biekien zaidan data aukeratu dut.

atera aurretik errepasso azkarra: laneko uniforme, mugikorra, giltzak, diru-zorroa eta aterkia. Prest.

Iritsi naiz lanera.

Oraindik 13:00ak. Ez dut oroitzen halako goiz aspergarririk. Kafetegian



Arg: Unsplash.

Telebista piztu, gosalduta eta Twitter irekitzea erabaki dut. Ordu haue-tako programa txatxak baino aberasgarriagoa iruditzen zait txoriaren aplikazioa. 'La Manada'ri buruzko txioak, bart gaueko Salvados programari eginiko kritikak, Katalunia, umorezko beste batzuk...

Ohitura bihurtu da jada, kaka zaharra! Goiz esnatu ohi naiz lasai gosalduta eta dutxatzeko asmoz, lanera korrika eta presaka joan behar ez izateko. Beti lez hogeita minutu besterik ez zaizkit gelditzen etxetik ateratzeko.

Ilea lisatzeko makina piztu, arropa aukeratu... beti ere, tarteka-tarteka WhatsApp-ari eta Facebookari birritan erreparatuta. Etxetik

ez da inor sartu 12:00etatik. Bost minuturo begiraten diot mugikorraren erlojuari, WhatsApp-ari... Denbora gelditu dela ematen du.

Haratx, bikote bat sartu da. Edariak eskatu eta mahaian eseri dira. A zer amorrua! Biak segapotoa eskuan, ez dute hitzik egin. Egungo gazteria txoratuta dabil teknologiek. Halako gogoetekin beste belaunaldi batean jai nintzela iruditzen zait askotan.

Okerrena, halako testutxook idazteari, irakurtzeari eta, nola ez, sarean partekatzeari ekiten diodala. Hausnartuta beroni ere identifikatuta sentitu naitekeela honekin; XXI. mendearen gaixotasuna denarekin.

luze

Malloetako kablea, lehen eta oraina elkartuz

lepa irakurle! Gaintzan jaioa naize-
nez, txikitatik entzuten nituen ka-
blearen historiak, Malloetako bela-
rra bordetara bidaltzeko erabiltzen
zutena. Zaharren kontu bat iruditzen
zitzaidan, lehengo kontuk, ni aurre-
ra begira nengoen, nire etorkizu-
na nola eraikiko, nola garai berriei
moldatuko. Denbora gutxian gau-
zak asko aldatu direla iruditzen zait,
aukera asko aurrean... Nola begira-
tuko ba aitzinako kable zaharrari?
Zaharrari lotzen ninduen beste gau-
za bat zen hori eta nik orduan justu
kontrakoa nahi nuen, loturak hautsi
eta berrirako aske izan.

Bizitzan kokatzen joan nintzen
heinean, nire buruan eta nire lane-
tan segurtasuna hartzean, lasaiago
nengoen eta beste begi batzuekin
begiratzen nuen gure bailara, eta
noski, kablea. Kontakizunak beste
maitasun batekin entzuten nituen
eta ez nintzen epaitua sentitzen le-
hen bezala (alegia, zuek ez dakizue
lan egitea zer den, guk lan egin ge-
nuen moduan...) Goizean goiz bat-
zuek belarra moztera joaten omen
ziren Malloetara, beste batzuek pus-
karekin gero, batzuek goran belar-
rak bildu, buusi edo tela zati handi
batzuetan jarri eta behera bota ka-
bletik txirrika edo polea batzuetatik
zintzilik. Behean berriz batzuek zain,
buusiak jaso eta bordetara belarra
sartzeko, hori bidean trabatzen ez
bazen...

Etxe bakoitzean ume pila bat
omen ziren orduan, etxe inguruetan
artoa etab. erein eta animalientzat
belarra zegoen tokitik ekarri behar,
Mallotik. Iruditzen zait aurrenekoz



ideia eduki zuena erotzat hartuko
zutela, egia esan badelako ideia
pixka bat eroa. Baina gero, aurrera
egin zuten eta Mallo guztian ha-
mar-hamaika kable egon zirela uste
dud. Noski, horiek jartzeko auzola-
na ezinbestekoa, kablea igotzeko,
astoak eta jende tiradak erabiltzen
omen zituzten... Gero etxe ezberdi-
nek ere partekatuko zituzten kable
horiek... Gure ingurura aldaketa ede-
rrak ekarriko zituen kableak!

Eta garai berriak ditugu orain ere,
esan bezala azkar aldatu dira denbo-
rak, ia atzera begiratzeko denborarik
gabe goaz aurrera. Baina latza litza-
teke nondik gatozen ahaztea. Latza,
noski, gure aurrekoen lanei mespre-
zua egin eta oraingo erosotasunean
erortzea. Gaur egun horrela baldin
bagaude, garai batean egin zutelako

da. Eta honek ez luke pentsamendu
bat bakarrik izan behar, benetako
sentipen bat baizik, ohartzeko eta
bizitzeko denbora eskatzen duena.

Araiztar talde bat, kable bat be-
reskuratu nahian hasi da. Sekulakoa
iruditzen zait. Zertarako? Urtean
egun batez, kablearen festa, hara
joan, belarra jaitsi, gure arbasoak
gogoratu, argazki zaharrak, azalpe-
nak... Bizi direnei eskerrak emanez eta
bizi ez direnei omenaldia eginez. Ho-
netaz gain, ondare zati bizi bat izango
da kablea, Malloetan tente, bisitan
datorren jendeak ikusi ahalko duna,
mendizaleek, eskoletako umeekin
ere lan bereziak egin ahalko dira.
Bide batez ere beste batzuek ere
balioa hartzen dute, ohiturek, ar-
gazkiek... Tokian berbizitzeko aukera
dugu gainera.

Garrantzitsua da gure arbasoei
eskerrak ematea. Garrantzitsua
da ohartzea garai bakoitzak bere
erronkak dituela eta garaiko jendeak
dakiela nola moldatu horietara. Ga-
rrantzitsua da ohartzea elkarlanean
bakarka gehituta, baina askoz gau-
za sakonagoak egin daitezkeela.
Garrantzitsua da gure inguruaren
kontzientzia eta bizipena izatea, ez
bakarrik argazki bat balitz bezala,
zerbait bizia bezala. Araitzen lan
eta bizi taldeari zorionak hasi duen
bideagatik, garai berriak datoz eta
"kable" berriak sortu beharko dira,
garaira moldatu, gure beharrak, na-
hiak eta ametsak ase. Kablea, aitzai-
kia izan dadila atzera begiratu eta
omentzeko, handik indarrak hartu
eta etorkizun ederra bideratzeko,
buusiak bete bizi!

ALDATZ

Sanmartinak, omenaldi eta guzti

Giro ederrean ospatu zituzten San Martin jaiak Gaintzan eta Aldatzan. Asteburu euritsua izan zen arren, gaintzatarrek Sonbelu elkartearen bueltan herri afariarekin eman zioten hasiera festei. San Martin Eguna haur-jolasekin eta harri-jasotze eta ingude erakustaldiarekin ospatu zuten. Aldatzen berriz, urteroko patata tortilla txapelketa egin zuten lehenengo egunean. Larunbatean, Iraunkorrek Txarangarekin etxe etxe erronda egin zuten. 25 urte bete dira aurten Iraunkorrek Txaranga lehenengoz Aldazko festetara etorri zenetik. Geroztik urtero faltarik gabe alaitu dituzte herriko kaleak eta herritarrek euren esker ona adierazteko jaietako jertseak oparitu zizkieten. Horra hor aurtengo Sanmartinetako zenbait irudi.



GAINTZA



Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antzonia.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

LEKUNBERRI



Arg: Gari Garaialde.

671 puntu eskuratu ditu Sotok Donibane Lohitzuneko final-aurrekoan

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako azkenaurreko final-aurrekoa izan zen joan den azaroaren 26an Donibane Lohitzuneko frontoian jokaturako saioa. Julio Soto Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Jone Uria, Iñaki Apalategi eta Agin Laburrekin batera aritu zen. Binaka zortziko handian aritu ziren lehenik, zortziko txikian ondoren, puntutan, hamarreko txikian ofizioka eta azkenik kartzelako zigorraren lana eta gero erabakita gelditu ziren saioan bertsolariek eskuratutako puntuak: Igor Elortzak eskuratu zituen puntu gehien, 710 eta jarraian sailkatu ziren Maialen Lujanbio (707,5 p), Julio Soto (671 p), Jone Uria (668,5 p), Agin Laburu (634,5) eta Iñaki Apalategi (633,5 p).

Iruñeko Anaitasunan jokaturako da azken final-aurrekoa datorren abenduaren 2an. Bertan izanen dira Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Alaia Martin, Miren Amuriza, Oihana Iguaran eta Unai Agirre.

Orduan ezagutuko ditugu Barakaldoko finalean izanen diren zazpi bertsolarien izenak.

EUSKAL HERRIA

Alfonso Ponce Gomez sarituko dute datorren Angel Urrutia Poesia Sariketan

25 poesia lan aurkeztu dira Angel Urrutia Poesia Sariaketako edizio berri honetan eta epaimahaiko kideek lanak aztertu eta gero Albaceteko Alfonso Ponce Gomezen *Periscopio* obra saritzea erabaki dute. Egileak erabilitako tonu baikorra eta zantzu kritikoak nabarmendu dituzte. Obra horretan gaurkotasunezko gaiak landu ditu, giza harremanak, lana edo langabezia, egunerokotasuna, maitasuna, artea... Martxoan emanen diote saria eskura Ayestaran hotelean egingen den ekitaldian.



2014ko edizioaren irudia.
Arg: J.A. Garaikoerxa

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitaratekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARDEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

“G20ari eta bere politikari ezezkoa adieraztea zen helburua”

Mikel Alvarez beteluarra ere atzerrian izan da uda honetan, Hanburgon, Elkartasun Globalaren Goi Bileran. LABeko ekintza sozialeko egiturako kidea da bera, LABeko Bilboko ekintza sozialeko ardura-duna.

Zein helburu du LABeko ekintza sozialeko egiturak?

Gauden fase historiko eta sozial honetan, sindikatuok beste errealitate bati erantzun behar diogu. Langileok bizi dugun zapalkuntza ez da soilik lan zentroan ematen; lan zentrotik kanpo, gure bizitza garatzerako orduan, beste hainbat zailtasunei egin behar diegu aurre. Termino klasikoetan, esan dezakegu lana-kapitala kontraesanetik, bizitza-kapitala dikotomiara egin dugula salto, hau da, kapitala-lanari beste hainbat faktore atxikitu zaizkiola. Hain zuzen ere, horri erantzun nahi dio ekintza sozialeko egiturak. Etxebizitza eskubidea, prestazio sozialak jasotzeko eskubidea, pobreziaren kontrako borroka, elikadura burujabetzarako eskubidea, indarkeria matxistaren kontrako borroka... Askok dira ditugun erronkak. Esan bezala, soilik sindikatuon eta beste eragile sozialen arteko elkarlanaren bitartez izango gara gai politika publikoetan eragiteko eta bestelako alternatiba sozial bat eraikitzeko.

Hanburgon izan zinen uda honetan Elkartasun Globalaren Goi Bileran. Zein helbururekin joan zinen?

4 egunetarako joan nintzen Hanburgora, *Global Solidarity Summit* topaketetan parte hartzeko asmoarekin. Topaketa hauek, Europa eta mundu mailako ezkerreko alderdi politiko, sindikatu eta mugimendu sozial ezberdinek antolatzen zituzten



“Gehiengo sozial baten eskubide politiko, ekonomiko eta sozialak defendatu nahi baditugu ezin dugu sistema honetan jarraitu”

konferentzia moduko batzuk ziren. Gure helburuen artean, batez ere, 3 zeuden: Europako beste sindikatuarekin harremanak egin, globalizazioaren inguruan lanean aritzen diren mugimendu sozialekin hartu emana izan eta azkenik, esperientzia konkretuak ezagutzea. Azkenik, gure helbururik garrantzitsuena, G20ari eta bere politika kapitalista, neoliberal eta inperialistei ezezkoa adieraztea zen. LABetik hori salatzea eta mundu mailako langileriaren alde egitea zen printzipio zentrala.

Zein gai landu zenituzten bilera horretan?

Bileran gai anitzak landu ziren, baina betiere gaur egun bizi dugun mundu mailako egoera sozial larriarekin lotuak egon ziren. Besteak beste, aldaketa klimatikoa, mundu mailako krisi ekonomikoa, sindikalgintzaren gaur egingo erronkak edota egoera geopolitikoaren inguruko gaiak egon ziren mahai gainean. Modu integralean ulertu behar dugu mundu mailan bizitzen ari garen krisia eta desjabetze prozesua. Gutxi batzuk gehiengo batean eskubideak zapaltzen ari dira eta horrek esfera ekonomiko, politiko, sozial, kultural eta ekologikoan du bere eragina. Beraz, problematika guzti horiei atxikitzen zitzaizkien han landu genituen gaiak. Oso aberasgarria izan zen, izan ere, askotan hausnarketak modu isolatuan egiten ditugu, interkonexiorik garatzen ez dugularik afera ezberdinen artean. Finean, arazo globalei, erantzun globalak eman behar dizkiegu.

Zein ondorio atera zenituzten bertan?

Ondorio nagusia bat eta bakarra izan zen: gehiengo sozial baten eskubide politiko, ekonomiko eta sozialak defendatu nahi baditugu ezin dugu sistema honetan jarraitu. Azkenean, sistema neoliberal honek gutxi batzuen pribilegioak defendatzen eta indartzen ditu. Gainera, hainbat hausnarketa kolektibo partekatu ondoren, ikusi genuen mundu mailako alternatiba erreal bat garatzeko bide luzea geratzen zaigula sindikatu, alderdi politiko eta eragile sozialei. Bide horri ekiteko, batik bat, eraikuntza teoriko eta praktikoa erreal eta hautemangarriak garatu behar ditugu, langileekiko eta oro har, populazioaren gehiengoarekiko interpelazio zuzena izango dutenak.



“Arazo globalei, erantzun globalak eman behar dizkiegu”

G-20aren foroa egun horietan ari zen ospatzen Hanburgon bertan eta foro horren aurka egin zenu-ten. Zergatik?

G20ak herrialde aberatsenak biltzen dituen foroa da eta horrela bada, erantzukizun zuzena du munduko gehiengoak bizi duen prekaritate, pobrezia eta zapalkuntzan. Murrizketak, eskubide sozialen urraketak eta politika ekonomiko neoliberalen inplementazioa dira, besteak beste, goi bilera horretan adostu zituzten erabakiak. Urtero egiten duten bilera honek markatzen du nazioarteko politikaren iparrorratza eta norabidea. Horren aurkako kontrabandere gune

transbertsal, anitz eta integralak osatu behar ditugu eta horregatik hain zuzen ere joan ginen Hanburgora. *Global Solidarity Summit*ean parte hartzeaz gain, kalean ere egon ginen manifestatzen eta gure ezezko borobila adierazten G20ari. Ez dakit beste mundu bat posiblea izango den, baina ez dut zalantzarik behar beharrezkoa dugula.





Afaria otordu garrantzitsua al da? Edo ezer jan gabe hobeto?

Kontsultan eta jendearekin tratuan daramaten denbora honetan gauza askotaz ohartu naiz. Bada jende askok gaizki egiten duen otordu berezi bat, eta hori, afaria da. Batzuk gutxi edo ia ezer ere ez dute jaten... "ongi ari direlakoan" ez gizentzeko diote. Beste batzuek aldiz "plazer momentua" deitzen diote, egun osoaren ondoren, lasaitasunez hartzen duten momentua eta edozer jaten dutenak... ogitarteko batetik hasita, pizta bateraino. Bada jendea ere, egun guztia jan eta jan pasa ondoren ez dutenak afaltzen edo fruta pixka batekin aski duena.

Ba hau dena ez da osasungarria, ezta egokia ere. Horregatik gaurkoan, afori egoki batek zer nolako egitura izan behar duen adieraziko dizuet eta zer ez duen eduki behar. Bere garrantzia eman behar zaiola aldarrikatzen dut.

Lehenik eta behin afaria batek zer ez duen eduki behar esango dizuet:

- Grasa asko dituzten elikagaiak baztertuko ditugu.
- Azukre simple eta gozoak alde batera utziko ditugu.
- Eta noski, ez da kantitate asko jango.

Orduan, hau da kontuan eduki beharrekoa:

- Arina izan behar du, energia asko emango ez dizkiguten elikagaiak

eduki behar ditu, lotarako ez ditugu behar.

- Absortzio mantsoko karbohidratoak sar daitezke: patata, arroz integrala, kinoa...(pixka bat).
- Barazkiak sartuko ditugu, baporean eginikoak hobeto digeritzen dira.
- Elikagai proteikoak sartu behar ditugu: oilaskoa, arraina, haragia (grasa gutxirekin), arrautzak...

- Oliba olio edo haziak erabiliko ditugu (bere neurrian).

- Eta garrantzitsua da afaldu eta hortik 2-3 ordu sartzeara lotara, digestioa ongi egina dugunean, hau nahiko zaila da.

Hau izan da gaurkoa, eta gogoratu otordu hau ere garrantzitsua dela eta egin beharrekoa.

Hurren arte!!





Urbasa zeharkatzen

Arabako lautadan egindako mendi-irteerekin amaitu ondoren, Ttuturre Kirol Elkarteko mendizaleek erronka berriak dituzte datozen hilabeteetarako. Nafarroa hegoaldeko mendilerroetatik barna zeharkatuko dute, Urbasatik hasi eta Orbaraino. Joan den azaroaren 26an Urbasako portutik irten ziren eta Bargagain, Balankaleku, Iruaitzeta, Baiza eta San Adrian zeharkatu ondoren, Lizarragako mendatean amaitu zuten lehen etapa. 31 lagunek parte hartu zuten eta guztira 17 kilometro egin zituzten. Bigarren etapa abenduaren 10ean izanen da, Lizarragatik Ultzurrunera arteko ibilbidea eginen dute. Bestalde, gogoratu abenduan komeni dela datorren urte osorako federatu txartela ateratzea. Araxes nahiz Ttuturre klubak bitartez egin dezakezu.

Eskualdeko sei lagunek parte hartu dute Behobia-Donostian

25.486 lagunek egin zuten lasterka aurtengo Behobia-Donostian eta horietatik 24.510 korrikalarik lortu zuten helmugaratzea, iaz baino 718 gutxiago. Eta iritsi zirenetatik 884 deskalifikatuak izan ziren.

Urtetik urtera emakumeen parte-hartzea geroz eta altuagoa da, aurten %23,41ekoa izan da. Aroa Merinok ordu bete, hamaika minutu eta bost segundoko denborarekin lortu zuen podiumeko lehen postua, atzetik sailkatu ziren, Maria Noguero (01:16:46) eta Dolores Marco (1:16:56).

Gizonezkoetan berriz, Carles Castillejo izan zen azkarrena eta hirugarren txapela izan zen berarentzat ordubete eta hogeita hemeretzi segundoko denborarekin. Bigarren gelditu zen Camilo Santiago (01:01:28) eta hirugarren Iraitz Arrospide (01:02:35).

Eskualdeko korrikalariei dagokionez, sei lagunek parte hartu zuten. Ander Arraztio eta Xabier Satrustegi izan ziren iristen lehenak, Dolores Marco-ekin batera egin zuten gainera.

Horra hor eskualdeko lasterkarien denborak:

- Ander Arraztio Saralegi (Betelu) 01:16:49
- Xabier Satrustegi Gartzia (Errazkin) 01:16:53
- Mikel Amundarain Aranalde (Arribe) 01:35:00
- Izar Amundarain Orbegozo (Arribe) 01:35:00
- Angel Soroa Onsalo (Lekunberri) 01:44:03
- Iñigo Oreja Sanz (Errazkin) 01:53:31



Oskoz anaiek irabazi dute Larraungo Pilota Goxua Txapelketa

Joan den azaroaren 12an jokatu zituzten Larraungo Pilota Goxua Txapelketako finalak Aldazko frontoian. Irailaren 2an eman zioten hasiera txapelketari eta guztira berderatzi bikotek parte hartu dute. Aldazko Sanmartinetan erabaki ziren aurtengo txapeladunen izenak.

Hirugarren postuetan sailkatu ziren Uztegi Gari Uitzu eta Lekunberriko Iñigo Gurra, Irurtzungo Egoitz Carrion eta Andoni Jakari (22-18) irabazi eta gero. Final handia Almandozko Oskoz anaiek irabazi zuten, Uztegi eta Arribeko Aitor Goikoe-txea eta Ion Ariztiari 22-20 irabazi eta gero. Zorionak!



Eman izena!

Araitz-Beteluko XIII. Krosean izen emateko epea irekita dago abenduaren 1az geroztik. Urtarrilaren 14an eguerdiko 12:00etan izanen da lasterketa. 7,7 kilometroko ibilbidea egin beharko dute korrikalariek Betelutik Arribearainoko joan-etorria bitan eginez. Aurten beritasun gisa krosa Beteluko plazan bukatuko da. Eman izena www.kirolprobak.com atarian.

“Eskure jarrita daude eta mantsoak die”

Uttarte baserrian betidanik izan dituzue behiak...

Bai, goe etxean ni ttiki-ttikie nintzela zazpi eo zortzi behi giñun, esne behiek. Kendu giñuzenean, oain dela hamaika urte, hemezortzi eo hemezortzi bazien, ikullue goraino beteta giñun. Eta azkeneko urtetan gaina kasi patu ein giñun esnea eamatea.

Eta gero behorrak erosi zenituen...

Bai, aurrenekoa monturekoa ekarri nun eta geo harrei launtzeko haragitarako beste behor bat erosi nun da oain sei buru o badie. Oaindik Aralarren die, launbetean jetsi beharra dauzket, aurreneko elurteak urtero harrapatzen dit!

Haragitarako saltzen dituzu?

Txamalak, aurten hiru die. Oain behor haragie bastante igo da, hamar urte beño gehigo prezio beretsun eaman ondoren.

Baina esne-behi haiek kendu ondoren, beste bat ekarri zenuen...

Behi Suiza at ekarri giñun eta geo harren umea aurreko utzi giñun. Oain ikullun daude bi Suiza ta pinta bat. Pinta hoi de mestizoa da. Gauze raroak denak gustatzen zazkit eta herriko batei ne biga gustatzen zitzaion eta kanbioa ein giñun.

“Hotako txekor batek zortzi hilebetekin salda eitteko hezurrek dauzke oaindik”

Baina berezienak ekarritako azken behi hauek dira, ezta?

Bai, eskozesak. Aurretik betizuk euki nittun, beño haik zebatzeko abilidadeik ez nun izandu eta aurreneko urten saneamendukoak etorri zeen eta haik harrapatuko zittun Jaungoikoik etzen!

Hok betidanik gustatu izan zazkit eta lehengo urtean joan nintzen Lakuntzeko Alejandro Ibarrangana zakurrei eakustea eta behi hok han zeuzken, beño salduta zeuzkela esan zien. Eta handik denbo batea hots ein zien beste erostune atzea bota zela eta etxea ekarri nittun zezen bat eta bi biga.

Highland arrazakoak dira, eskoziarrak....

Bai, hanka motzak dittue, ile gehigo, burue eta muturre ttikie eta adarrak oso haundik itten zazkie.

Eta haragia?

Nik oaindik ez dot probatu, beño pentsuik eman bai kanpoan eoten badie de grasa itten omen zaie, haragi samurre ikaragarrie izan behar due. Berez kanpoko azienda da, negu eta uda kanpoan pasatzen duenak, beño lengo otsailen etorri zien eta negue ikearri gustatu zitzaien ikullun.

Baina motelago hazitzen dira...

Bai, bastantez gehio kostatzen zaie. Urritxek dienak lau hilebetekin ekarri nittun eta oain urte eta lau hilebete dauzkie. Txekorrak normalen zortzi edo beatzi hilebetekin kendu eitten die, beño hotako txekor batek zortzi hilebetekin salda eitteko hezurrek dauzke oaindik.

Etxeok zer esan zizuten behi eskoziarrak ekarri zenituenean?

Attek esateu: “Hurrengoak txinoak o izango zitteau ez?” [Kar, kar, kar...]. Eta herrikoak aurpegire ez ditea deus esan, ezautu de itten naue raro antza naizela...

Buru kopurua handitzeko asmoa duzu?

Eskure jarrita daude eta mantsoak die, beño aurtengo negue probatu beharko du, geo igual eingo de betizuna ta...



Intzako Kontiño bordako larreetan ditu Uttartek behi eskoziar hauek. Arg: Labrit.

**Etiket kanpo egiten duzu lan...
Noiz arduratzen zara aziendaz?**

Goizean edo atxaldean, libratzen naitzenean bisita ein eta "al día" jartzeittut.

Zer esan nahi du egunean jartzeak?

Auzokoan barrutin etzala eon, auzokoekin hasarretu bai bazpare!

Animaliak horren gustoko izanik, ez duzu inoiz baserritik bitzeza pentsatu edo granja bat eraikitzea?

Abeltzantza eta nekazaritza estudiatu nun, beño hemen hortaz bizitzeko leku txarrak die eta oain o kriston pille dauzkezo eo ez dao bizitzeik. Nik kapritxoz dauzket eta garestie da, ibili ta buelta, azkenen gastue da, urten bukaeran kontuk ez ittea hobe, beño gustatu eitten zazkit eta...

Abeltzantza eta nekazaritza estudiatu nun, beño hemen hortaz bizitzeko leku txarrak die eta oain o kriston pille dauzkezo eo ez dao bizitzeik. Nik kapritxoz dauzket eta garestie da, ibili ta buelta, azkenen gastue da, urten bukaeran kontuk ez ittea hobe, beño gustatu eitten zazkit eta...

Intzako Juan Joxe Olasagarrre, Uttarte ezizenez ezagunagoa dugu eskualdean eta bada oso berea duen afizio bat, azienda, eta ahalik eta bereziagoa bada, hobe. Behi suitzarrak, mestizoak, betizuak, behorrak, poniak... eta orain Highland arrazako behi eskoziarrak ekarri ditu.



M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarra Korresponsala

**948513056
699179437**

Atabal
okindugio

Era askotako ogiak eta gozoak

Etkez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldaturako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskaintzen dizugu.

Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

LARRAUNGO UDALAK ONARTUTAKO MOZIOA

ETXEBIZITZA HUTSEN ZENTSOA OSATU ETA NASUVINSAREN PROGRAMA AZTERTU

EH Bildu Larraungo udal taldetik hurrengo ideiak garatzeko proposamena helarazten dizkiogu udal batzarrari:

- Larraungo udalerrian etxebizitza hutsaren fenomenoaren garrantzia zehaztea, helburu hirukoitzari erantzunez: etxebizitza hutsaren stoka zenbatzea, udalerriko herri bakoitzean etxebizitza kopurua zehaztea eta motaren arabera sailkatzea.
- Pertsona juridikoen jabetza diren etxebizitzak identifikatzea (finantza entitateak, erakin enpresak, norbanakoak, etab).
- Aurreko bi puntuekin garapenarekin etxebizitza hutsen katalogoa edo errolda osatzea. Ondoren kontzejuekin eta herritarrekin lanketa bat abiarazteko.
- Nafarroako Gobernuaren mendeko NASUVINSA sozietate publikoarekin etxebizitza alokatzeko programan sartzeko aukera aztertzea eta posible bada gauzatzea.

Aurreko puntuak betetzeko hurrengo bide orria proposatzen diogu Larraungo udal batzarrari:

- Informazioa bilduko dugu udal erroldan, herritarrik erroldaturik ez dauden etxebizitzak identifikatuz.
- Etxebizitza hutsa ur kontsumoen arabera aztertuko dugu, erabilerarik gabeko etxebizitzak identifikatuz.
- Aurreko bi puntuen datuak gurutzatuko ditugu gaur egun hutsik dauden etxebizitzen katalogoa eginez.
- Jasotako datuekin elkarlana abiatuko dugu kontzejuekin eta herritarrekin denon artean hausnarketa prozesu bat irekiz, Larraungo etxebizitza politikaren inguruan planteamenduak jasotzeko.
- Lan hauek aurrera ateratzeko udalak lan talde bat sortuko du udal ordezkariez osatua. Eta egokia ikusten bada aholkularitza eskatu daiteke lanak aurrera ateratzeko.
- Lan taldearen lana izanen da baita ere NASUVINSArekin bildu eta etxebizitza alokatzeko programaren helburuak Larraunen garatzeko aukera aztertu, hauek izango lirarteke:
 - Hutsik dauden etxebizitza erabiliak higiezin merkatuan sartzea.
 - Neurrizko prezioetan alokatzen ahal diren etxebizitzen parke publikoa sortzea.

IRAGARKI TAULA

Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889



AMAIRU bar

ETXEGO PIZZAK,
KOPA BERGIZAK

948504352

Kantina Rock

948
60
48
21

KANTINA
bokatak, platerak eta...musika

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com



ABENDUA

2 | LEKUNBERRI:

Truke azoka Lekunberriko frontoian 11:00etatik aurrera.

2 | LEKUNBERRI:

Pala Txapelketa mistoa Lekunberriko trinketean

2 | ALLI:

Mus txapelketa Allin, 17:00etan.

3 | LEKUNBERRI:

Leitzako Jeiki abesbatzaren kontzertua Lekunberriko elizan, 12:00etan.

8, 9, 10 | LEKUNBERRI:

Bigarren eskuko azoka Lekunberriko frontoian, goizeko 10etatik arratsaldeko 19:30etara.

11 | BETELU:

Jantziekin norberaren onena emateko tailerra Zaida Muñoz personal shoperraren eskutik. Beteluko Aitzberri Zentroan.

24 | HERRIZ HERRI:

Olentzeroren etorrera.

SALGAI

- Lekunberri 90 metro karratuko etxe adosatua salgai, 3 logela, sukaldea, egongela, bi bainu, garajea eta terraza. 190.000 euro. Harremanetarako: 679 631 725 (Aitor).

BESTERIK

- Esperientzia duen Lekunberriko irakaslea arratsaldetan eskolaz kanpoko laguntza emateko prest. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako edozein mailatan, euskaraz zein gaztelaniaz. Interesa izanez gero, deitu telefono zenbaki hauetara: 617843925 / 948386678.

- Pianoa jotzen hasi nahi baduzu, nire etxean, Lekunberri, klaseak eskaintzen ditut. Anima zaitetz eta deitu 636 390 356 telefono zenbakira. (Luci).

TAXILON



Lontxo Otamendi Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitx

SOTIL GARAJEA



BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

GARAJA

Zure behar eta ordubegira moldatuko gara

Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika ^{inglesa}
lengua ^{kimika}
marrazketa tekniko

948 504 450
648253523

uskera ^{historia}
unibertsitate mailako ikasgaiak

ETORRI ETA INFORMAZIOA ZAITEZU!



ARAITZ-BETELUKO KULTUR ALDIA

Abenduak 2, larunbata

(Gaintzako elkartean, 17:00etatik aurrera)
• SUKALDARITZA TAILERRA
12-16 urte bitarteko gazteekin afari goxoa
prestatu eta elkarrekin afalduko dugu!

Abenduak 3, igandea

(Betelun, egun osoan zehar)
• EUSKARAREN EGUNA
Goizean artisau azoka, zanpantzarrak,
talogileak... Ondoren bazkaria elkartean.

(Uztegin, 18:30etan)

• "SUSTRAIETATIK HITZETARA"
Patricia Laclaustraren eskutik.
Gorputz-kontzientzia, borondatezko
arnasketa eta adierazpen sortzailea
lantzeko tailerra.

Abenduak 4, astelehena

(Arriben, 19:00etan)
• IÑAKI ARRATIBELÉN HITZALDIA
"Dopinga. Gaurko egoera".

Abenduak 5, asteartea

(Intzan, 19:00etan)
• "EUSKARAREN ESPEKTAKULUE"
Oihan Vegaren eskutik.

Abenduak 6, asteazkena

(Errazkinen, 17:00etan)
• BERTSO ANTZERKIA
Haurrentzako: "Petresku, etzi ez etsi"
Eneko Arrate eta Itxaso Paiaren eskutik.

(Arriben, 19:00etan)

• "ELKARREKIN TOGETHER"
Euskal bale ontziei buruzko dokumentala.

Abenduak 7, osteguna

(Atallun)
• 16:00 MUS TXAPELKETA AZKARRA
• 21:00 BERTSO AFARIA
Oihana Iguaran eta Agin Labururekin.
Ondoren, DJ OIXINIArekin parranda goizaldera arte.

Abenduak 8, ostirala

(Betelun, 12:30etako mezaren ostean)
• LEITZAKO JEIKI ABESBATZA

(Azkaraten 23:00etan)

• XABI SAN SEBASTIAN
Kontzertua

Abenduak 9, larunbata

(Lezaetan, 19:00etan)
• "SEXIGENTZIAK ASKATUZ"
Klown saioa Itziar Saenz de Ojerren eskutik.